

AITONAREN

GORDAIRUBA (1)

(Ordizia-ko jai-aldietan Aipamen onragarria irabazia.)

AITONA gisarajua, oiean gaño, noiz baiña noiz bere azkenengo asasa emango ote zuan zegon. Arpegi simurretik bera zijoakiyon izerdi otza; iya itzik esaten eziñ asmatu zuan, eta sabelak berriz aunditurik zeuzkan. Bere aurrian zegoan apaiza azkenengo errezoak adieraziaz, eta onen inguruban pamili eta auzoak negar isillakiñ eriyaz kuptizen ziradela.

Ontan, izaten du onek argitasunezko une bat, eta zabaldurik bere begiyak, begirutzen diyo aurrean zegoan semeari esanaz: Nere semea. Jaungoikoak deitzen nau bere ondora. Ez negarrik egiñ, bada oraiñ edo gero denok pagatu biar degun zorra da. Nik ezdizut donkituko ondasun aundirik, zeren pobre eta beartuba beti izandu naizen, baiña nai nizuke agertu nola ondo izan zeñekezun. Or, ukulluban dago aspaldietan eskutaturik gordairu egiazko bat. Abe zar oietakoen batian benturaz egongo da gorderik. Obetogo ikusteko, ona izango litzake, leio bat irikitzea, bere argiyaren bidez agertzen ote dezun. Ukulluban espadezu billatzen, juan zaitea gaztañadira, eta zugaitz zar, usteldu guziyak ebaki itzazu, beren barrenian ote dagoan ikusteko. Eta azartak laguntzen ezpadizu, ona emen nere azkenengo konsejuba: Echea-ren garako-aldetik dagoan otadiya, beiñ ziur garbitu ondorran, layatu zazu, ondo barrendubaz lurra, eta gero bi-ortzeko edo achurrearekiñ seatu zokorrak. Nun batian agertzeko-etan an argituko dezu. Nere aginduba egiten badezu, zure biziyan zer janik etzaizu paltatuko.

(1) Tesoro.

Semeak erantzun ziyon: Bai, nere aita, itz ematen diot egingo degula beorren agiñduba.

*
* * *

Ordu guchi barru aitona ill-tzan. Semea, agiñdu bezela, asi zan, urrengo egunetik ondasun eskutatukoaren billa. Iriki zuan ukulluban leio bat, eta abe zarrak bota eta berriak ipiñirik, etzuan aitona esan-dakorik agertu. Berialašen igo zan mendira eta gaztaña arbola zar guziak ondotik ebaki zituan. Alferrikako lana. An ere etzuan ezere aztarrenik atera. Azkenik, neke eta izerdi aundiarekiñ bai, baiña, pozikan garbitu zuan otadiya, baita ere layatu eta achurtu, eta juranaiga bea! etzuan agertu lur gose eta nekatuba besterik.

Onela bere esperantza guziak galdurik, aldatu zituan gaztañadiyan arbola gaztiak zarren lekuban, eta otadiya berriz biurtu zuban gari soro eder batian.

Urte bete guchi gora bera igaro zan gauza oiek gertatu ziranetik. Uda denpora zan, eta arratsaldeko itzalarekiñ batian, igo zan, Erretore jauna, baserrira, urteoro bezela, *konjuruak* egitea.

—¿Zer diozute, galdetzen du Erretoreak?

—Emen jauna, beti lan eta lan.

—¿Eta aitona gordairua agertu zenduten?

—Bai zera..... nekea pranko artuta.....

—¿Baiña berak agiñdutako guziak egiñziñusten?

—Bai jauna. Esan bezela.

—¿Eta?.....

—Esan diot. Ezerchore ez.

—¿Etzenduten ondo osatuko agiñduba?

—Guk egiñ genezakeana beintzat bai.

—Ia, guazen, guazen ikusi dezagun.

Sartu ziran ukulluban, eta leio berritik zetorren argi garbiaren bidez, agertu zan bere begien aurrian, bei talde ikusgarri bat, errapak lurreraño zituztela.

—¿Eta esaten dezu, ez dezula emen agertu ondasun eskutatukoa?, diyo Erretore jaunak.

—Ez jauna.

—Goazen gaztañadira.

—Jauna, beorrentzat urruticho egiño da. Gañera alperrik neka-tsea da. Ondo ikusiya dago an ikusi lezakeana.

—Neke piskabateagatik ez dit ajolik. Goazen.....

Gaztañadiya zegoan berriturik, arbola gazteak, zarren lekuan aldaturakoak lora ugariya beren adarretatik zinzilika zutela.

—¿Eta emen ere ez dezu agertu?

—Ez jauna.

Apaizak egin zuan konjuruba, eta jechi zan otadira.

Otadiya, gari soro eder batian biurturik zegoan, ori ori urrez jantziya.

—¿Eta emen?

—Ezta emen ere jauna.

Erretoreak bedeinkatu zuan soroa.

Baserrira biurtu ziradenian, eseri zan Erretorea arbola baten kerizpe gozo-aren azpiyan, eta diyo baserri gizonari: Ikusten danez, zuk ez dezu agertu aitonak esan dakorik.

—Ez jauna.

—Hada, nik agertu det.

—¿Beorrek?

—Bai, eta baten lekuban iru.

—¡Aranzazuko Ama Birjiña!

—Lenengoa ukulluban. ¿Zer zegoan lenago an? Ganaru argala. Orain, leio ura irikitziakiñ eman diezu ganaruari argi eta aise ederra, ori da *pensurik* onenak ordainduko ez duan janariya; eta abe zarrak bota eta berriyak ifiñtzeakiñ garbitasun eta alaitasuna. Ona emen ondasun egiazkoa.

Bigarrena gaztañadiyan. ¿Zer zan ura aurretik? Su-egurra bezterik ez; orain an daukazu negurako janari seguruba.

Azkenik irugarrena otadiyan. Lenago ezertako balio etzuan lurrak, orain ematen dizu urte guzirako ogiya. ¿Sinisten dezu?

Buruba, makur, makur egifita gelditu zan gure baserritarra, aitor-tuaz bere isiltasunarekiñ, zeñen arrazoi aundiya zeukan aitonak, bada, ondasunik egiazkoena lanetik datorrena da.

Orduban diyo Erretore jaunak: Gure lanak ez du ezer baliyo baldiñ zerubak laguntzen ez padu. Bedeinkatubak daude zure lurrak, eta lan egiten badezu etzaizu paltatuko ogiya bizi zeran artian.

JUAN OYANGUREN